

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MAÑUETAKO UDALA

Hautaketa-oinarriak eta deialdia, hutsik dauden egiturazko plazak betetzeko merezimendu lehiaketaren bidez, iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren esparruan

Alkatearen 2022ko maiatzaren 16ko ebazpen baten bidez, onespena eman zitzaion iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren mende dagoen enplegu publikoaren eskaintzari. Ebazpen honen bidez onesten diren oinarri orokorretan (I. eranskina) Mañuetako Udalaren enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesu guztietako deialdiei aplikatzekoa zaien araudi komuna jaso da, bai eta plaza zehatzen deialdia ere (II. eranskina).

Deialdia eta oinarri hauek behin betikoak dira administrazio bidean, eta haien aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahalko da, bi hileko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian. Bestela, aurrez, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua aurkez dakiok alkateari, hilabeteko epean, baina ezingo dira bi errekurtsuak aldi berean aurkeztu.

Mañueta, 2022ko abenduaren 9a

Alkatea

FRANCISCO JAVIER GARCIA PEREZ DE LOZA

I. ERANSKINA**MAÑUETAKO UDALEAN 20/2021 LEGEAREN SEIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIAN JASOTAKO
IRAUPEN LUZEKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUAK
ARAUTZEKO OINARRIAK****1. Xedea**

Oinarri hauen xedea da udalak deitutako iraupen luzeko lan kontratuko enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuen deialdi zehatzetara sartzeko arau orokorrak ezartzea, 2022ko enplegu publikoaren eskaintzaren arabera ez baitago bestelako prozesurik. Prozesu horiek lehiaketa sistemaren arabera antolatuko dira, txanda librean sartu ahal izango da.

Hautaketa prozesu bakoitzaren berezitasunak deialdi espezifikoan arautuko dira, eta, nolana ere, honako hauek jaso beharko ditu:

- Lanpostu/plazaren izena.
- Lanbide kategoria.
- Lanaldi partzialerako deitutako plaza kopurua.
- Eginkizunak.
- Sartzeko titulua.
- Hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data.
- Berariazko merezimenduak.

2. Lan baldintzak

Eskainitako lanpostuak udalak erabakiko ditu ordutegia, lanaldia eta egutegia, lanpostuaren izaeran eta premia berezietan oinarrituta.

3. Aplikatzekoa den araudia

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikulua eta lehenengo, laugarren, seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriak.

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu bateginaren 55. artikulutik 62.era bitartekoak.

Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako toki araubidean indarrean dauden lege xedapenen testu bateginaren 128.2 eta 130. artikulua eta hurrengoak.

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen laugarren xedapen gehigarrian eta Administrazio Publikoaren Administrazio

Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 33. artikuluan xedatutakoaren arabera, oinarri hauetan ezarritako epeak erdira murriztu ahal izango dira, eskaerak eta errekursoak aurkezteko epea izan ezik.

4. Izangaien baldintzak

Hautaketa prozesuan parte hartzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Aldez aurretik dagokion eskaera egitea.
- b) Espainiako edo Europar Batasuneko estatu kideetako baten nazionalitatea izatea, edo Europar Batasunak egindako eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen aplikazio eremuaren barruan egotea, langileen zirkulazio askea aplikatzen bada. Espainiarren nahiz Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako herritarren ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, haien nazionalitatea gorabehera, baita ezkontide bataren zein bestearen ondorengoek ere, baldin eta ezkontideak legez bananduta ez badaude, eta ondorengo horiek hogeita bat urte baino gutxiago badituzte edo adin horretatik gorakoak izanik mendekoak badira. Aurreko paragrafoetan aipatutako pertsonen gain, Espainiako Estatuan legeko bizilekua duten atzerriko pertsonak ere aurkez daitezke. Hautatzen badituzte, kontratatzeko eskatzen diren administrazio baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute.
- c) 16 urte beteta izatea eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, eta nahitaez erretiratzeko gehieneko adina ez gainditzea.
- d) Autonomia erkidegoetako edozein administrazio publikoren, organo konstituzionalen edo estatutu organoren zerbitzutik bereizita ez egotea, eta ez egotea ebazpen judizialaren bidez desgaituta enplegu edo kargu publikorako, funtzionario kidegora edo eskalara sartzeko, edo desgaitu duten langile lan kontratadunaren lanpostuan egindako eginkizunen antzekoetarako. Beste estatu batekoa izanez gero, ez egotea desgaituta edo estatu horretan aurretik adierazitako baldintza berdinetan enplegu publikorako sarbidea eragotziko dion egoera baliokide batean.
- e) 50,00 euroko inskripzio tasa ordaindu izana udalaren titulartasuneko Kutxabank-eko ES32 2095 3218 3710 9522 7558 kontuan, zein plazatarako lehiatzen den eta lehiaketan parte hartuko duen pertsonaren izena adierazita.
- f) Lanpostuaren berezko eginkizunak behar bezala betetzea eragozten duen gaixotasun edo akats fisiko nahiz psikikorik ez izatea. Hori dagokion osasun azterketaren bidez egiaztatu beharko da, plantillako langile lan kontratadun finko izendatu aurretik.
- g) Eskatzen den titulua izatea (deialdi espezifikoan adieraziko da), edo hura igortzeko eskubideak ordaindu izana. Atzerriko tituluak badira, homologazioa egiaztatzen duen ziurtagiria beharko da.
- h) Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean ezarritakoaren arabera, bateraezintasuneko legeko kasuren batean ez egotea. Kargu publiko bat edo bateraezina den jarduera pribatu bat duten hautagaiek, deialdi honen lanpostuan lanean hasi aurretik, dagokion aukera egin ahaliko dute, aipatutako legea kontuan hartuz.

Aurreko betekizun guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira beteta, aurreko h) puntuari ezarritakoa izan ezik. Era berean, hautaketa prozesuan, izendatu arte, eduki beharko dira guztiak.

5. Eskabideak

Eskabideak Mañuetako Udaleko bulego orokorretan eskuragai egongo dira, eta III. eranskinean jasotzen den eredu normalizatuarekin bat etorriko dira.

Lehiaketan parte hartzea eskatzeko eskabide normalizatuak Mañuetako Udaleko alkate-lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta baldintza hauek bete beharko dituzte onartuak izateko:

a) Hautagaiak deialdiaren laugarren oinarrian adierazitako baldintza guztiak betetzen dituztela adieraziko dute. Betekizunak bete behar dira eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako.

b) Eskabideetan agiri hauek erantsi beharko dira:

— NANen fotokopia konpultsatua, edo horren baliokidea atzeritarren kasuan, eta deialdian parte hartzeko eskatzen den tituluarena.

— Alegatutako merezimenduen egiaztagirien fotokopia konpultsatuak.

— Tasa ordaindu izanaren bankuaren egiaztagiria, banketxeak zigilatu eta baliozkotuta.

Tasak ez badira osorik ordaintzen eskabideak aurkezteko epearen barruan, prozesutik kanpo geratuko dira. Tasa ordaindu izanak ez du inola ere ordeztuko eskabidea aurkeztu beharra garaiz eta forma egokian, oinarri honen aurreko apartatuetan adierazitakoa kontuan izanda.

Eskabideak, behar bezala beteta, Mañuetako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira (Udaleko plaza, 5, 01307 Mañueta, Araba), hogeitun egun baliorduneko epean, deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

6. Izangaiak onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, onartutako eta baztertutako hautagaien behin behineko zerrenda onetsiko du alkateak. Zerrenda hori iragarki taulan eta udalaren web orrian ikusgai jarriko da. Horrez gain, ALHAOn argitaratuko da. Bost egun baliorduneko epea emango da baztertzea eragin duten akatsak edo omisioak zuzentzeko, edo egokitzeak jotzen diren erreklamazioak aurkezteko, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betiko zerrenda bihurtuko da.

Halakorik balego, beste ebazpen baten bidez onartu edo baztertuko dira. Ebazpen horrek behin betiko zerrendak onartuko ditu eta aipatutako bitartekoetan argitaratuko da.

Azken ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hileko epean, onartutako eta baztertutako zerrenda ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Dena den, egokitzeak jotzen den beste edozein errekurtsio ere aurkeztu ahal izango da. Horren aurretik,

egun beretik hasita hilabeteko epean, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio alkateari. Dena den, ezingo dira bi errekurtsoak aldi berean egin.

Behin betiko zerrendarekin batera, epaimahai kalifikatzaileko kideen izenak argitaratuko dira. Epaimahaiaren gainerako jakinarazpenak udalaren ediktu taulan eta udalaren webgunean (www.banosdeebro.es) argitaratuko dira.

7. Epaimahai kalifikatzailea

Deitutako hautaketa prozesuaren epaimahai kalifikatzailea Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31. artikuluan eta Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretuaren 60. artikuluan ezarritakoaren arabera eratu da. Lehendakari batek, idazkari batek eta lau kidek osatuko dute.

Ezin izango dira hautaketa organoetako kide izan hautapen edo izendapen politikoko langileak, bitarteko langile lan kontratadunak edo funtzionarioak eta behin-behineko langileak.

Eratzeko, epaimahaiak, lehendakariak deialdia egin ondoren, boto eskubidea duten kideen gehiengo osoa, lehendakaria eta idazkaria, titularrak edo ordezkioak, bertaratzea eskatuko du, baliotasunez jarduteko.

Epaimahaiak bertaratutako kideen botoen gehiengoaren bidez hartuko ditu erabakiak. Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik; izan ere, ez du boto eskubiderik izango. Berdinketarik izanez gero, epaimahaiko lehendakariaren botoak erabakiko du.

Epaimahaiak arloko adituek parte hartzea eska dezake, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31.4. artikulua arabera, lehiaketa prozesuaren edozein alderdiri buruzko iritzi tekniko profesionala eman dezaten. Pertsona horiek ez dute boto eskubiderik izango.

Epaimahai kalifikatzaileko kideek ezingo dute parte hartu Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan ezarritako inguruabarrak gertatzen badira, eta alkateari jakinarazi beharko diote. Hautagaiek epaimahaiko kideak ezetsi ahalko dituzte, aipatutako legearen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurretik aipatutako inguruabarrak gertatzen direla uste badute.

Epaimahaiak beharrezko neurriak har ditzake deialdi honetan ezartzen ez den guztian hautaketa sistema garatzeko, eta aplikatzeari eta interpretatzeari dagokienez sortzen diren auzi guztietan erabakiko du.

Epaimahai kalifikatzailea, deialdiaren eta haren oinarrien barruan, ariketen edukiaren, ebaluazio irizpideen eta ariketen garapenaren inguruan sortzen den edozein gairen gainean erabakitze eskumena duen organoa da. Era berean, epaimahaiak bere helburuak betetzeko beharrezkotzat jotzen dituen erabakiak hartuko ditu, betiere indarreko legeek eskumen hori beste organo batzuei ez badiete eman.

Epaimahai kalifikatzaileak hautaketa prozesuaren edozein unetan hautagai batek deialdian parte hartzeko ezarritako baldintzak ez dituela betetzen jakiten badu, interesdunari entzun eta

gero baztertzea proposatuko dio organo eskudunari, eta eskaeran jasota utzi zituen akatsak edo faltsutasunak adieraziko ditu.

8. Lehiaketa aldia

Izangaiak aukeratzeko prozedura lehiaketa izango da, txanda librean.

Epaimahaiaren erabakiak Mañueta udalaren iragarki taulan eta www.banosdeebro.es web orrian argitaratuko dira.

Alegatzen diren merezimenduak edukitzeko erreferentziako data 2022ko abenduaren 31 baino lehenagokoa izango da.

Lehiaketa aldian 100 puntu lortu ahal izango dira gehienez. Lehiaketaren balorazioa epaimahaiak egingo du, baremo honen arabera:

a) Esperientzia (60 puntu, gehienez).

1. Deialdiaren xede den lanpostuko lan esperientzia (48 puntu, gehienez).

1.1. Deialdia egiten duen administrazioan aldi baterako lan-kontratuko langile gisa emandako zerbitzu-urte bakoitzeko, lanaldi partzialean (ehuneko 50) edo gehiago eskaintzen den lanpostu edo lanpostu berean: 8 puntu urtean; gehienez 48 puntu edo 6 urte. 6 urte baino gutxiagoko esperientziak hilabete osoko 1eko puntu tasan baloratuko dira.

Apartatu hau baloratzeko, honako baldintza hau bete beharko da: plaza huts baterako lehiatzen den izangaia aldi baterako langile lan kontratuduna edo mugagabea izatea, udal honek deialdiaren xede den lanpostuan edo plazan kontratatua eta egoera horretan etenik gabe egotea, edo lan erreserbarekin, eskabideak aurkezteko epea amaitu arte.

Mañuetako Udalean egindako zerbitzuak alegatu egin beharko dira eta ofizioz zenbatuko dira.

2. Administrazioko lan esperientzia orokorra (12 puntu, gehienez).

2.1. Lanaldi partzialeko zerbitzu-urte bakoitzeko (ehuneko 50) edo gehiagoko beste administrazio publiko batzuetan eskainitako kategoria eta funtzio bereko lanpostu edo lanpostu batean, deialdia egiten duen Administrazioan barne: 2 puntu gehienez 12 puntu edo 6 urte. Iana. 6 urte baino gutxiagoko esperientziak hilabete osoko 0,1eko tasan baloratuko dira. Puntuen erdia aurreko merezimenduak egiaztatzen diren Administrazio bereko beste lanpostu batzuetan egindako zerbitzuengatik emango dira, deialdi bakoitzean hala zehazten bada.

b) Prestakuntza osagarria. (40 puntu, gehienez)

1.1. Deialdiaren xede den plazaren taldea baino goragoko talde batera sartzeko balioko lukeen titulua izateagatik: 10 puntu. (oharra: indarrean dagoen hitzarmenaren arabera, lan kontratudunen lanpostuak taldeetan sailkatzen dira, funtzionarioenak bezala; beraz, balora daitezkeen tituluak goragoko edozein taldetan sartzeko eskatzen direnak izango dira). Dagokion tituluarekin egiaztatuko da.

1.2. Euskara hizkuntza eskakizuna (2 puntu, gehienez):

1. hizkuntza eskakizunagatik: 1 puntu.
2. hizkuntza eskakizunagatik: 2 puntu.

1.3. Ingelesa hizkuntza eskakizuna (2 puntu, gehienez):

1. hizkuntza eskakizunagatik: 1 puntu.
2. hizkuntza eskakizunagatik: 2 puntu.

1.4. Deitutako lanpostuei lotutako lanpostuen esparru funtzionalarekin lotutako prestakuntza-ikastaroak (12 puntu, gehienez)

Erreklamatzaren diren prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak deitutako lekuan eskatutakoak izan behar dira.

Ikastaroaren egiaztagiria ikastaroaren ordu-kopuru zehatza jaso behar du, eta ordu kopurua eskaeraren berdina edo handiagoa bada soilik baloratuko da.

Inola ere ez dira baloratuko oinarri hauetan aurreikusita ez dauden edo ezarritako epean behar bezala egiaztatuta dauden ikastaroak.

Ikastaroak 2022ko abenduaren 31 baino lehen eginak izan behar dira.

1.5. Informatika gaitasunak (gehienez 14 puntu)

Informatika-egaztuta-mailaren egiaztapena meritu gisa baloratuko da, Informazioaren Gizarterako Euskadi Planak KZGunea zentro publikoetan eskura jartzen dituen moduluak eskuratuz, IT Txartela ziurtagiriaren bidez.

Informatika egaztutako egiaztatzeko ziurtagiriak (IT Txartela) 2022ko abenduaren 31 baino lehen lortuak izan behar dira. Ez dira puntuatuko ondorengo datetan lortutako ziurtagiriak.

2 puntu baloratuko dira deialdiaren xede den lanpostu bakoitzean zehazten diren egiaztagirietako bakoitzeko, 14 puntu gehienez.

Ziurtagiriek bertsioan eta mailan zehaztutakoak izan behar dute.

9. Hizkuntza eskakizuna egiaztatua izatea

Euskararen hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko, Euskara Tituluaren eta Ziurtagiriaren Erregistro Bateratuan (ETZEB) kontsulta egingo da. Egiaztatutako joko dira aipatutako erregistroan inskribatuta dauden hizkuntza eskakizunak, deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan ondorio horietarako ezarritako egiaztapen data baino lehenagoak badira.

Erregistro horretan jasota ez dauden euskararen egaztuta ziurtagiriak edo tituluak dituztenek jatorrizko egiaztagiria edo konpultsatua aurkeztu beharko dute eskaerarekin batera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen hizkuntza eskakizunen balioak diren egiaztagiria eta tituluak bi dekretu hauetan zehaztu

dira: azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua, euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena; eta apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluaren eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko dena.

10. Epaimahaiaren proposamena

Hautaketa prozesuaren azken kalifikazioa lehiaketa aldian lortutako puntuazioen batura izango da, eta prozesura onartutako izangaien izena eta puntuazioa argitaratuko ditu epaimahaiak ediktu taulan eta udalaren web orrian.

Epaimahaiak ezingo du inola ere proposatu deialdian eskaintzen diren lanpostuak baino hautatu gehiago.

Epaimahaiak alkateari bidaliko dio akta, izendatzeko proposamena egin dezan.

Puntuazioan berdinketarik gertatuz gero, lehiaketa aldian lortutako kalifikaziorik onena hartuko da kontuan, hurrenkera honetan: lehenengo 8.a.1.1, bigarren 8.a.2.1.

Aktan, hautagaien zerrenda ere jasoko da, puntuazio ordenaren arabera, deitutako plaza kopurua gainditzen bada ere. Hautagaiak erreserba zerrenda bat osatuko dute uko egiteak betetzeko. Zerrenda horrek deialdi honen xede diren plazak adierazitako kasuetan betetzeko baino ez ditu ondorioak izango, eta ez du ondorioz izango lan poltsa gisa edo beste hautaketa prozesu eta etorkizuneko deialdi batzuetarako, eta kideek ez dute arestian adierazitakoez bestelako eskubiderik eskuratuko.

11. Agirien aurkezpena

Proposatutako pertsonak, lehiaketa aldia gainditzen duten pertsonen zerrenda argitaratu eta 10 egun baliouduneko epean, lehiaketan parte hartzeko oinarrietan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten jatorrizko agiriak aurkeztu beharko ditu, hala eskatzen bazaio. Horrez gain, zinpeko adierazpena aurkeztu beharko du, egiaztatzen duena ez dela ezein administrazio publikoren zerbitzuetatik bereizi eta ez dagoela epai irmo baten bidez funtzio publikoan jarduteko desgaituta, bai eta enplegutik kanpoko jardueren adierazpena ere, bateraezintasunen ondorioetarako.

Proposatutako pertsonak eskatutako agiriak ez baditu aurkezten adierazitako epean, ezinbesteko kasuetan izan ezik, edo eskatutako baldintzak betetzen dituela ez badu egiaztatzen, ezingo da izendatu eta jardura guztiak baliorik gabe geratuko dira. Kasu horretan, organo eskudunak lehiaketa gainditu duen eta azken kalifikazioaren hurrenkera hurrengo postuan dagoen pertsona edo pertsonak proposatuko ditu. Modu berean jokatu da izangaiak probaldia ez badu gainditzen.

12. Izendapena

Hautaketa prozesua amaitutakoan, hautatutako pertsona 10 egun baliouduneko epean hasi beharko da lanean, agiriak aurkezten direnetik zenbatzen hasita, eta dagokion lan kontratua sinatu beharko du.

Epe hori igaro eta eskubide hori baliatu ez bada, gaindituen zerrendako hurrengo izangaiari proposatuko zaio kontratua baldintza berberetan formalizatzeko, erreserba zerrendaren arabera.

Probaldia hiru hilabetekoa izango da, eta hura amaitutakoan, dagokion ataleko arduradunak probaldia egin duen langileari buruzko txostena egingo du. Txosten horretan, honako alderdi hauek baloratuko dira: lanerako gaitasunari eta errendimendu profesionalari dagokienez erakutsitako trebetasunak eta abileziak, erantzukizuna eta eraginkortasuna, ikasteko interesa, prestasuna eta ekimena. Era berean, lantaldean integratzeko eta barruko nahiz kanpoko harremanetara egokitzeko gaitasuna ere aintzat hartuko da.

Txosten hori langileen buruari bidaliko zaio. Probaldia behar bezala gaindituz gero, izendapena behin betiko bihurtuko da, azterketa medikoa egin ondoren.

Probaldia ez badu gainditzen, alkateak ebazpen arrazoitua emango du.

Kasu horretan, edo proposatutako hautagaiak uko egiten badu, organo eskudunak aurreko oinarrian adierazitako zerrenda osagarrian hurrengo postuan dagoen hautagaia kontratatuko du, oinarri horretan eskatzen zaizkion agiriak aurkeztutakoan.

Inguruabar bera berriz gertatzen bada, modu berean jokatu da, zerrenda osagarria amaitu arte.

Udalak adierazten duen prebentzio sozietateak azterketa medikoa eginda, gainditzen badu, proposatutako hautagaia plantillako langile lan kontratudun finko izendatuko dute. Horrela, izendapena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, gehienez ere hilabeteko epean, lan kontratua sinatu beharko du. Adierazitako epean justifikatutako arrazoirik gabe ez badu sinatzen, lanpostuari uko egiten diola ulertuko da. Horrenbestez, lanposturako eskubidea galduko du eta hurrengo hautagaia praktiketan kontratatuko da.

Modu berean jokatu da azterketa medikoa ez badu gainditzen. Hautagaiak onartzen dute azterketa medikoaren txostena, ohorerako eskubidean eragiten badu salbu, haren arabera baztertu den hautagaiaren erreklamazioa aztertzen duen organoaren eskura jartzea.

Proposatutako hautagaiak deialdia egin duen Administrazioan deitutako plazetan edo lanpostuetan aurretiko zerbitzuak egiaztatu baditu, egin gabe utzi ahal izango dira probaldiaren eta azterketa medikoaren izapideak.

13. Lan poltsa

Prozesua salbuespeneko denez, ez da lan poltsarik eratuko hautaketa prozedura honetan.

14. Datu pertsonalen babesa

Hautagaiak eskatzen zaizkien datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira, eta tratamendu bat emango zaie hautaketa prozesua kudeatzeko. Horrela, gaur egun indarrean dagoen datu pertsonalak babesteko legea aplikatuko da fitxategian. Beraz, hautagaiak datuak ikusteko, ezabatze, aurka egiteko eta zuzentzeko eskubidea baliatu ahaliko dute udalean.

Bestalde, identifikazio datuak eta hizkuntza eskakizunak edo baliokideak egiaztatze datuak IVAPi eman ahaliko zaizkio, alegatutako egiaztagiriri buruzko datuak egiaztatu ditzan hizkuntza eskakizunen egiaztagirien erregistroan.

Datu pertsonalen tratamendua honako hauetan ezarritako moduan egingo da: Datu Pertsonalen abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretua eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua.

Azken arau horren 13. artikulua xedatutakoarekin bat etorritik, jakinarazten da datuen arduraduna Mañuetako Udala dela, haren legezko ordezkaria, alkatea, eta administrazio horretako datuak babesteko ordezkaria, idazkaria.

Hautaketa prozesu honetan eta prozesuko proba eta ariketetan parte hartzean, izangaiak baimena ematen du bere eskabidean jasotako datu pertsonalak tratatu daitezkeen aldizkari ofizialetan, iragarki tauletan, webgunean, eta, orokorrean, hautaketa prozesuaren emaitza partzialak edo behin betikoak jakinarazteko erabiltzen den beste edozein bitartekotan argitaratzeko, eta IVAPEk euskararen ezagutza maila egiaztatzeko. Hautaketa prozesu honek publikotasun printzipioari jarraitzen dionez, eskaera ez da onartuko pertsonak bere datuak emateko baimenik ez badu ematen, adierazitako edukiarekin eta helburuetarako.

Datuak espedientea izapidetzeko beharrezkoa den denboran gordeko dira, eta gutxienez, amaiera ematen dion egintza irmoa izan arte.

15. Gorabeherak

Epaimahai kalifikatzaileak eskumena du sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta merezimendu lehiaketaren garapen onaz arduratzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan eta aplikatzeko den arautegi osagarrian ezartzen ez den guztian.

16. Aurkaratzeak

Epaimahaiaren erabakien, hots, merezimendu lehiaketa baloratzeko emandako puntuazioen aurka egin daiteke, erabaki horiek argitaratu eta bi egun balioduneko epean. Epe hori igarotakoan, hiru egun baliodun egongo dira alegazioak aurkezteko.

Deialdiaren, oinarriaren eta oinarri horien eta epaimahaiaren jarduketan ondorioz sortzen diren administrazio egintzen aurka egin ahalko dute interesdunek, Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legean ezarritako epean eta moduan.

II. ERANSKINA

Deialdiko plazarak

- Lanpostu/plazaren izena: ZERBITZU ANITZETAKO LANGILEA
- Kategoria profesionala: administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezietako azpieskala, E / talde profesionala, indarreko lanpostu zerrendaren arabera.
- Lanaldi osoan deitutako plaza kopurua: 1.
- Eginkizunak: Espazio publikoen mantentze eta garbiketa, udal eraikinen, hiri-altzarien, bide publikoen, lorategien mantentze-lanak; festetarako eta konponketa lanetarako beharrezko

elementuak jartzea eta kentzea; baita beren lanbide-gaitasun eta gaitasunekin bat etorri ezarritako helburuak lortzeko agintzen zaizkien beste zeregin batzuk ere.

- Sartzeko titulua: Eskola ziurtagiria, edo baliokidea.
- Euskararen hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data: esleitu gabe
- Berariazko merezimenduak.
 - Sartzeko titulua: Eskola-graduata, edo baliokidea.
 - Balora daitekeen goragoko titulua: Batxilergo edo Teknikari titulua
 - Administrazioan lanbide-esperientzia eta deialdiaren xede den lanpostua: zerbitzu anitzeko langilea (E taldea)
 - Administrazioko beste zerbitzu batzuk, deialdia egin duena barne, zerbitzu anitzetako langilearen lanpostua bete izana egiaztatzen dutenak, E taldeko plaza edo lanpostuetan
 - Euskarako Hizkuntza-eskakizuna: 1 edo 2 puntu
 - Ingeleseko Hizkuntza-eskakizuna: 1 edo 2 puntu
 - Arlo funtzional espezifikoa lotutako prestakuntza-ikastaroak (gehienez 12 puntu)
 - Gidabaimena (B): 2 puntu
 - Orga jasotzaile ikastaroa: 2 puntu
 - Lorezaintzako ikastaroak (Gutxienez 200 ordu): 4 puntu
 - Iturgintza, soldadura edo elektrizitate ikastaroak (Gutxienez 200 ordu): 4 puntu

Alegatutako tituluak, nolahi ere, ikastaroaren izena, data, irakaskuntza-zentroa eta ordu-kopurua jaso beharko dute, eta 2022ko abenduaren 31 baino lehen amaituta egon beharko dute. Ikastaroko asistentzia-agiriak ordu-kopurua jasotzen ez duenean Ezin da. ebaluatu egingo da, eskatzaileak bere iraupena eman duen organoak emandako ziurtagiri edo ordainagiri bidez egiaztatzen ez badu behintzat.

Oinarri hauetan aurreikusitako ikastaroak soilik baloratuko dira.

- Informatika gaitasunak (gehienez 14 puntu)
 - Word 2010
 - Excel 2010
 - Access 2010
 - Outlook 2010
 - PowerPoint 2010
 - Internet
 - Windows 10

Informatika ezagutzak egiaztatzeko ziurtagiriak (IT- Txartela) 2022ko abenduaren 31 baino lehen lortuak izan behar dira. Ez dira puntuatuko ondorengo datetan lortutako ziurtagiriak.

Inolaz ere ez dira baloratuko instantziak aurkezteko epean aurkeztu eta behar bezala egiaztatu ez diren merezimenduak.

Ziurtagirik bertsioan eta mailan zehaztutakoak izan behar dute.

- Lanpostu/plazaren izena: ZERBITZU ANITZETAKO LANGILEA
 - Kategoria profesionala: administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezietako azpieskala, E talde profesionala, indarreko lanpostu zerrendaren arabera.
 - Lanaldi partzialean deitutako plaza kopurua: 1.
 - Eginkizunak: Erabilera anitzeko eraikina mantentzea eta garbitzea, baita eraikinean egiten diren ekitaldi eta jardueretan prestatzea, bertaratzea eta egotea (zinema, gimnasia, Kzguna...); gimnasioaren mantentze eta garbiketa, baita erabiltzaileei irekitzea eta arretea ematea ere.
 - Sartzeko titulua: Eskola-graduatu, edo baliokidea
 - Euskararen hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data: esleitu gabe
 - Berariazko merezimenduak.
 - Sartzeko titulua: Eskola-graduatu edo baliokidea.
 - Balora daitekeen goragoko titulua: Batxilergoko edo teknikari titulua
 - Administrazioan lanbide-erperientzia eta deialdiaren xede den lanpostua: zerbitzu anitzeko operadorea (E taldea)
 - Administrazioko beste zerbitzu batzuk, deitzailea barne, zeinetan zerbitzu anitzeko operadore kargua bete izana egiaztatzen den, jarraian zehazten diren lanpostu edo lanpostuetan emandakoak: (E taldea).
 - Euskara Hizkuntza-eskakizuna: 1 edo 2 puntu
 - Ingelesaren Hizkuntza-eskakizuna: 1 edo 2 puntu
 - Arlo funtzional espezifikoiari lotutako prestakuntza-ikastaroak (gehienez 12 puntu)
 - Gidabaimena (B): 2 puntu
 - Orga jasotzaile ikastaroa: 2 puntu
 - Lorezaintzako ikastaroak (Gutxienez 200 ordu): 4 puntu
 - Iturgintza, soldadura edo elektrizitate ikastaroak (Gutxienez 200 ordu): 4 puntu
- Alegatutako tituluak, nolanahi ere, ikastaroaren izena, data, irakaskuntza-zentroa eta ordu-kopurua jaso beharko dute, eta 2022ko abenduaren 31 baino lehen amaituta egon beharko dute. Ikastaroko asistentzia-agiriak ordu-kopurua jasotzen ez duenean Ezin da. ebaluatu egingo da, eskatzaileak bere iraupena eman duen organoak emandako ziurtagiri edo ordainagiri bidez egiaztatzen ez badu behintzat.
- Oinarri hauetan aurreikusitako ikastaroak soilik baloratuko dira.
- Informatika gaitasunak (gehienez 14 puntu)
 - Word 2010
 - Excel 2010
 - Access 2010
 - Outlook 2010
 - PowerPoint 2010
 - Internet

- Windows 10

Informatika ezagutzak egiaztatzeko ziurtagiriak (IT Txartela) 2022ko abenduaren 31 baino lehen lortuak izan behar dira. Ez dira puntuatuko ondorengo datetan lortutako ziurtagiriak.

Inolaz ere ez dira baloratuko instantziak aurkezteko epean aurkeztu eta behar bezala egiaztatu ez diren merezimenduak.

Ziurtagiriek bertsioan eta mailan zehaztutakoak izan behar dute.

- Lanpostu/plazaren izena: ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA.
- Kategoria profesionala: Administrazio Orokorreko eskalakoak, Laguntzaile azpieskala, C2 taldea, indarreko lanpostu zerrendaren arabera.
- Lanaldi partzalean deitutako plaza kopurua: 1.
- Eginkizunak: esleitzen dira administrazioan izapideetako egiteko eta lankidetzan, hauei buruzko informazioa barne: udalaren errodaren kudeaketa, sarrera eta irteera erregistroa, administrazio kontabilitatea, udal zergak, erregistro zibila, udal artxiboa eta herritarrentzako arreta.
- Eskola ziurtagiria edo baliokidea. (C2 taldea).
- Hizkuntza eskakizuna: 1, derrigortasun datarik gabe.
- Berariazko merezimenduak.
 - Sartzeko titulua: Eskola-graduatua edo baliokidea.
 - Balora daitekeen goragoko titulua: Batxilergoko edo teknikari titulua
 - Administrazioan lanbide-esperientzia eta deialdiaren xede den lanpostua: zerbitzu anitzeko operadorea (C2 taldea)
 - Administrazio beste zerbitzu batzuk, deitzailea barne, zeinetan zerbitzu anitzeko operadore kargua bete izana egiaztatzen den, jarraian zehazten diren lanpostu edo lanpostuetan emandakoak: (C2 taldea).
 - Euskara Hizkuntza-eskakizuna: 1 edo 2 puntu
 - Ingelesaren Hizkuntza-eskakizuna: 1 edo 2 puntu
 - Arlo funtzional espezifikuari lotutako prestakuntza-ikastaroak (12 puntu gehienez)
 - EBCL ikastaroa: Europako Enpresa Gaitasuna: kontabilitatea, zuzenbidea eta enpresen kudeaketa (Gutxienez 40 ordu) 1 puntu
 - Lan Zuzenbidea: Kontratuak, Nominak eta Gizarte Segurantza (Gutxienez 65 ordu) 2 puntu
 - Kontabilitate kudeaketa (Gutxienez 90 ordu) 3 puntu
 - Idazkaritza, Administrazio eta Finantzetako goi-mailako teknikaria (Gutxienez 200 ordu) 2 puntu
 - Administrazio Laguntzaile Goi Mailako Ikastaroa (Gutxienez 200 ordu) 3 puntu

- Plataforma eAdministración (Gutxienez 12 ordu) 1 puntu

Alegatutako tituluek, nolanahi ere, ikastaroaren izena, data, irakaskuntza-zentroa eta ordu-kopurua jaso beharko dute, eta 2022ko abenduaren 31 baino lehen amaituta egon beharko dute. Ikastaroko asistentzia-agiriak ordu-kopurua jasotzen ez duenean Ezin da. ebaluatu egingo da, eskatzaileak bere iraupena eman duen organoak emandako ziurtagiri edo ordainagiri bidez egiaztatzen ez badu behintzat.

Oinarri hauetan aurreikusitako ikastaroak soilik baloratuko dira.

- Informatika gaitasunak (14 puntu gehienez)
 - Word 2010 Aurreratua
 - Excel 2010 Aurreratua
 - Access 2010
 - Outlook 2010
 - PowerPoint 2010
 - Internet aurreratua
 - Windows 7

Informatika ezagutzak egiaztatzeko ziurtagiriak (IT Txartela) 2022ko abenduaren 31 baino lehen lortuak izan behar dira. Ez dira puntuatuko ondorengo datetan lortutako ziurtagiriak.

Inolaz ere ez dira baloratuko instantziak aurkezteko epean aurkeztu eta behar bezala egiaztatu ez diren merezimenduak.

Ziurtagirik bertsioan eta mailan zehaztutakoak izan behar dute.

III. ERANSKINA

Eskaera orria

Merezimendu lehiaketa, Mañuetako Udaleko (zein plazatarako lehiatu nahi den, plaza horren izena) plaza bat betetzeko.

1. Datu pertsonalak:

Izena:

1. abizena:

2. abizena:

NANa:

Jaioteguna:

Telefonoa:

Helbidea:

Udalerrria:

Posta kodea:

2. Prestakuntza:

Deialdian eskatzen den titulu akademikoa:

3. Lehiaketa aldia:

Lan esperientzia:

HASIERA EGUNA	AMAITZE EGUNA	ADMINISTRATIO EDO ENPRESA ENPLEGATZAILEA	BETETAKO LANPOSTUA	LANALDIAREN EHUNEKOA

4. Egiaztatutako hizkuntza eskakizuna: maila: 1. HE / 2. HE (marratu ez dagokiona).

5. Deialdian eskatzen den titulu akademikoa baino goragoak.

6. Honekin batera doazen agiriak, jatorrizkoak edo haien kopia konpultsatuak:

- NANA.
- Plaza eskuratu ahal izateko eskatutako titulua.
- Tasak ordaindu izanaren ordainagiria.
- Hizkuntza eskakizunaren egiaztagiria edo titulua.
- Merezimendu gisa balora daitezkeen tituluak.
- Lanbide esperientziaren egiaztagiria.
- Administrazio publikoaren ziurtagiria.
- Erakunde pribatuaren ziurtagiria.
- Lan kontratuak eta luzapenak.
- Lan biziak
- Beste agiri batzuk (zehaztu).

Behean sinatzen duenak hautaketa prozesuan onartzea eskatzen du, eta eskaeran agertzen diren datuak egiazkoak direla eta deialdiaren oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituela aitortzen du. Horrez gainera, eskatzen dizkiotenean, jatorrizko agiriak aurkeztuko dituela adierazten du.

Bestalde, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, hauxe adierazten du:

— Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduaren 13. artikulua eta Datuak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikulua eskatutako baldintzak jakinarazi dizkiote.

— Eskieran jasotzen diren datu pertsonalak tratatzeko baimena ematen du, aldizkari ofizialetan, iragarki taulan, web orrian, eta oro har, hautaketa prozesuaren emaitza partzialak edo behin betikoak jakinarazteko erabiltzen den edozein baliabidetan argitara daitezen, bai eta, oro har, epaimahaiak hautaketa prozesua behar bezala gauzatzeko beharrezkoak dituen datuak tratatzeko ere.

— Baimena ematen du bere datu pertsonalak eta hizkuntza eskakizunen edo baliokideen egiaztagiriei buruzko datuak IVAPi lagatzeko, alegatutako egiaztagiriari buruzko datuak egiazta ditzan hizkuntza eskakizunen egiaztagirien erregistroan.

Data eta sinadura.

MAÑUETAKO (ARABA) UDALEKO ALKATE-LEHENDAKARIA.